OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALARENTZAT SOFTWARE LIZENTZIEN HORNIDURA KONTRATUA. PROZEDURA IREKIA

-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2025KO020002

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Oiartzungo Udalaren beharretarako hainbat software lizentzia hornitzea. Zehazki, Udalaren bulegotika, diseinu eta segurtasun informatikorako software lizentziak berritzea eta mantentzea.

Kontratua software lizentzien fabrikatzaileen arabera lau sorta edo lotetan banatzen da:

- 1. Lotea: Microsoft fabrikatzailearen software lizentziak
- 2. Lotea: Sophos fabrikatzailearen software lizentziak
- 3. Lotea: Autodesk fabrikatzailearen software lizentziak
- 4. Lotea: Adobe fabrikatzailearen software lizentziak

2.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Urteko 46.110,40 eurokoa (BEZik gabe), gehi %21eko BEZa 9.683,18 euro, guztira 55.793,58 euro (% 21eko BEZa barne), lau lotetan banatuta:

- 1. Lotea: 18.950,40 euro gehi % 21eko BEZri dagozkion 3.979,5 euro, guztira 22.929,98 euro (BEZ barne).
- 2. Lotea: 18.585,00 euro gehi % 21eko BEZri dagozkion 3.902,85 euro, guztira 22.487,85 euro (BEZ barne).
- 3. Lotea: 6.135,00 euro gehi % 21eko BEZri dagozkion 1.288,35 euro, guztira 7.423,35 euro (BEZ barne).
- 4. Lotea: 2.440,00 euro gehi % 21eko BEZri dagozkion 512,40 euro, guztira 2.952,40 euro (BEZ barne).

3.- EGIN BEHARREKO LANAK

Hain juxtu, lote bakoitzeko kontratistak honako eginkizun hauek bete beharko ditu, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian ezarritakoez gain:

- Lote bakoitzari dagozkion eta baldintza agiri honetan zehazten diren software lizentziak hornitzea, aipatu lizentziak berrituz eta mantenduz.
- Gerta litezkeen gertaera, arazo eta zalantzei irtenbidea ematea.

Horretarako, kontratistak behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak jarriko ditu, zeinak zerbitzu egokia emateko beharrezko eskarmentua eta formakuntza izango duten.

ESKU7441ba26-9da5-4e62-a643-cfef9102da96

4.- KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK

Lote bakoitzeko kontratistak kontratua gauzatzeko beharrezko gastu guztiak hartu beharko ditu bere gain, hala nola, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian ezarritakoez gain:

- Lizentzien horniduratik eratorritakoak.
- Lizentziak berritzeak eta mantentzeak eskatzen dituzten kudeaketa lanetatik eratorritakoak.
- Lizentziak berritu ondoren gertatu litezkeen gertaeren, arazoen eta zalantzen aurrean eman beharreko laguntza teknikotik eratorritakoak.

Prezioaren barne daude gastu horiek guztiak, baita zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketa, eta garraioaren gastuak ere.

5.- EXEKUZIO EPEA

Kontratuaren iraupena urte batekoa da, beste hiru urtez luzagarria. Dena den, software lizentzia bakoitzak bere berritze data dauka, hurrengo klausulan zehaztuko dena. Beraz, data horiek izango dira software bakoitzaren lizentziak berritzeko eta mantentzeko horniduraren iraupen epearen hasiera datak.

Horrez gain, kontratua indarrean dagoen bitartean lizentzia gehiago eskatuko balira, horretarako Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian ezarritakoa betez, eskaera egiten den egunetik 7 egun naturalen buruan aktibatu beharko dira lizentzia berri horiek.

6.- HORNITU BEHARREKO SOFTWARE LIZENTZIAK

Jarraian zehazten dira lote bakoitzean hornitu behar diren software lizentziak, kopuruak eta berritze datak:

1. Lotea: Microsoft fabrikatzailearen software lizentziak

Produktua	Kopurua	Berritze data
Microsoft Exchange Online (1. plana)	110	2026/04/02
Microsoft 365 Business Basic	15	
Microsoft 365 Business Standard	85	
Microsoft Copilot	5	

ESKU7441ba26-9da5-4e62-a643-cfef9102da96

OIARTZUNGO UDALA

2. Lotea: Sophos fabrikatzailearen software lizentziak

Produktua	Kopurua	Berritze data
Sophos MDR Complete – User	100	2026/03/22
Sophos MDR Complete – Server	12	
Sophos Central Email Advanced	150	
Sophos Central Intercept X for Mobile	20	
Sophos Central Network Detection and Response	100	

3. Lotea: Autodesk fabrikatzailearen software lizentziak

Produktua	Kopurua	Berritze data
Autodesk AutoCAD LT	6	2026/10/13
Autodesk Autocad including specialized toolsets	1	

4. Lotea: Adobe fabrikatzailearen software lizentziak

Produktua	Kopurua	Berritze data
Adobe Acrobat Pro DC	10	2026/04/01
Adobe Photoshop	1	

7.- BETE BEHARREKO BALDINTZA

1. eta 2. loteetan, esleipendunek ENS ziurtagiria duela egiaztatu beharko dute, maila ertainean edo goragokoan

8.- BERMEA

Hornidurari dagokionez, URTE BATeko (1) berme epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, SPKLn eta HAKLEOean adierazitako ondorioetarako ezartzen dena, Baldintza Teknikoen Agirian zehazten den bezala.

Udalak, berme epean, hornitutako ondasunetan akatsik edo hutsik aurkituz gero, eskubidea izango du kontratistari ondasun ezegokien ordezkoak jartzea erreklamatzeko, edo, nahikoa izanez gero, konpon ditzala eskatzeko. Bi aukeren artean Udalak erabakiko du.

ESKU7441ba26-9da5-4e62-a643-cfef9102da96

Esleipendunak berme epearen barnean ordezkatze horiek egiteko beharrezko lan guztiak bere gain hartuko ditu, horrela produktuen prestazioak bermatuz.

Berme epean jasotako hornidurak, kontratistaren akats edo hutsen ondorioz, lortu nahi den helbururako egokiak ez direla konturatzen bada Udala, eta susmatzekoa bada akatsak konponduta edo hornidura berria emanda nahikoa izango ez dela helburua lortzeko, aipatu epean, Udalak atzera bota ditzake hornidurak kontratistaren kontura utziz. Horiek horrela, Udalak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Produktua berritzearen intzidentzia posta elektronikoz jakinarazi eta 7 egun naturaleko epean ordezkatuko da.

Berme epearen barruan, esleipenduna derrigortua egongo da instalatzaileari, hornitzaileari edo fabrikatzaileari egotzi dakizkioken osagaien kalte, akatsen konponketak eta eguneraketak egitera. Eta hori nahikoa ez balitz, hornitutako materiala ordezkatzera ere bai.

Berme epea amaitzen bada Udalak SPKLren 305. artikuluan aipatutako eragozpenak edo salaketak formalizatu gabe, kontratista aske geratuko da hornitutako ondasunak direla-eta izan zezakeen erantzukizunetik eta behin betiko bermea itzuliko zaio.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Ibon Aizpurua Ugarte

Informatika zerbitzuen arduraduna

Elektronikoki sinatua

Nork Sinatua / Firmado por: IBON AIZPURUA UGARTE - 72458392C
2025/12/17 13:32:46

EKS | CSV: ESKU7441ba26-9da5-4e62-a643-cfef9102da96
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310